

I. SARRERA

Euskal Herriko Unibertsitateko Kalitate-Katedrak 2008ko otsailaren 18-19 bitartean antolaturiko <buruzagitza, komunikazioa, negoziazioa eta talde-lana ikasgelan> izeneko mintegian jorratutako irakaskuntza irizpideak aintzat harturik heldu diot bigarren lauhileko honetan irakatsi behar dudak ikasgaiaren programazioari. Aipatu ikasgaia da: gizarte eta kultur animaziorako programak II (GKAP). Gizarte Hezkuntzako Diplomaturako lehenengo mailan ematen da.

II. HELBURUAK

Gizarte eta kultur animaziorako programak II
1. GKA programa bat planifikatzeko, burutzeko eta ebaluatzeko irizpideak ezagutzea. 2. GKAKo zenbait esperientzia eta planifikazio ezagutzea eta aztertzea. Iturri bibliografikoetara jotzeko ohitura garatzea, zalantzak argitzeko, edukietan sakontzeko, askotariko hipotesiak edo balizkoak berresteko. 3. Iturri bibliografikoak kontsultatzeko, edukietan sakontzeko, galdetzaileak argitzeko, nahiz hipotesiak edo balizkoak argitzeko grina eta ohitura garatzea. 4. Taldeak dinamizatzeko zenbait teknika bizitzea eta irakasgaiaren saio batzuetan erabiltzea. 5. Talde-lanean trebatzea¹. 6. Ikasleen ikaskuntza-autonomia garatzen laguntzea. 7. Testu teknikoaren irakurketan trebatzea. 8. Testu teknikoaren idazketan trebatzea.

III. GAITEGIA

Gizarte eta kultur animaziorako programak II
1. GIZARTE eta KULTUR ERREALITATEAREN ANALISIA. 2. ERAKUNDEAK, EKIPAMENDUAK eta ZERBITZUAK. Baliabideak: giza-baliabideak, materialak eta baliabide teknikoak. 3. GKAKo prozesuen plangintza. 4. GKAKo esku hartzea eta dinamizazio prozesuak. 5. GKAKo ebaluazioa. 6. Testuinguru zehatz baten analisia. Bertako erakundearen, azpiegitura, ekimen, plan, programa eta proiektuen azterketa. 7. Goiko testuinguru zehatz horretako kolektibo edo giza talde batentzako GKAKo programa baten diseinua.

¹ Mintegiak proposaturiko <talde-lan>¹ ereduak aintzat hartzeak eta prozesuaren jarraipen estua egin nahi izateak hainbat ondorio dakartza. Lehenengoa, klase magistralak murriztu behar izango direla denbora luzea eskainiko zaiolako talde bakoitzaren jarraipenari. Bigarrena, ebaluazio ereduak aldatu egin beharko dela baita lan karga ere, gizarte eta kultur animaziorako programa baten diseinuak lan eskerga eskatzen duelako, batik bat, mintegiak hobesten duen talde-lan ereduaren arabera egiten bada. Talde-lanaz ari garela, argitu beharra dago Kalitate Katedrak hobesturiko eredu bati buruz ari garela, talde-lan egiteko metodologia jakin batetaz. Lanak talde-lan egiteko modu ugari dago, eta horien artean mintegiak talde-lana deritzana hobetsi zuen. Hemendik aurrera talde-lanari <TL> esango diogu.

IV. JARDUERA DIDAKTIKOAK

Ikaskuntza-irakaskuntza prozesua behar bezala gara dadin hainbat eta hainbat jarduera egingo dira lauhileko osoan zehar. Jarduera hauek, agian, <teknikatzat edo metodotzat> jo genitzakeen, bakoitzak berariazko metodologia duelako. Edonola ere, ez dugu bakoitzari dagokion metodologia azalduko luze joko bailuke. Aipatuko ditugu, ordea, zeintzuk izango diren bi ikasgai hauetan gehien erabiliko direnak.

***Eduki kontzeptual eta prozedurezkoen azalpen magistralak.** Saio hauetan ikasleen aurrezagutzak identifikatzeaz gain, eduki berriak azalduko dira, eta suerta daitezkeen zalantzak argituko dira.

***Testu teknikoan banakako irakurketa.** Beharren eta aukeren arabera saio magistraletan nahiz etxean egingo da. Edonola ere, irakurketa hauetan sortzen diren zalantzak saio magistraletan argituko dira. Irakurketa ororen ostean, hainbat hariketa egin beharko dituzte ikasleek.

***Talde-lana ereduaren araberrako jarduna:** gizarte eta kultur animaziorako programa baten diseinua izango da ikasleei aginduko zaien lan praktikoa. Testu tekniko bati dagokion zuzentasunaz eta argitasunez idazteko eskatuko da.

***Jarraipen bilerak.** Bilerak hauetan talde-lanaren prozesua bera jarraituko da eta prozesua bera optimizatzeko orientabideak eskainiko dira. Produktua beraren jarraipena ere egingo da.

V. LAN METODOA edo IKASKUNTZA-IRAKASKUNTZA PROZESUA BIDERATZEKO ORIENTABIDEAK

Lan metodoa zehazteko garaian, eredu konstruktibista hartu dut aintzat. Eredu honen arabera ikaslea bera da ezaguera eraikitzen duena, eta prozesu horretan, alde aurretik duen edo dakarren ezaguera bera osatzen, aldatzen eta garatzen du. Ikaskuntza-irakaskuntza prozesuan lau aldi bereizten ditu: a) *aurrezagutzen aldia* non irakasleak ikasleen aurrezagutzak identifikatu dituen. Aurrezagutza hauek ikaslearen askotariko esperientzietan, bizipenetan eta usteetan dute iturburua, eta ikaskuntza-irakaskuntza prozesu osoaren abiapuntua dira. Ondoren b) *ikuspegi berrien sorrera aldia* letorke, non irakasleak ikasleek dakartzaten aurrezagutzak kolokan jar dezaketen aipamenak, gertakariak, adibideak edota arazoak agertuko dituen. Ondoren c) *formalizazio aldia* letorke non irakasleak eduki berriak azalduko dituen, aurretik agertutako egoera edo arazo berriei erantzuten diena. Eta azkenik c) *aplikazio edo ebaluazio aldia* letorke non ikaslea gauza izan beharko den ikasitakoa egoera berri batean edo desberdinetan aplikatzeko.

Lehenengo bi aldiak saio magistraletan gauzatuko dira. Hirugarren aldia saio magistraletan ere gauzatu daitekeen arren, ez dugu ahaztu behar irakurketaren bidez ere eman daitekeela. Banakako irakurketa, guztiarekin ere, autonomia maila handiagoa eskatuko die ikasleei edukiak ulertu eta elaboratzeko orduan. Garrantzitsua deritzot ikasleak testu teknikoak irakurtzen ohituzea eta irakurketan sor dakizkien zalantzak eta kezka modu autonomo batez argitzen ohituzea. Aplikazio aldia, berriz, gizarte eta kultur animaziorako programaren diseinuan gauzatuko da, hau da, talde-laneko jardunean eta jarraipen bileretan.

Gauzak horrela, gai bakoitzaren hasieran aurrezagutzak identifikatzeko jarduerak egingo dira. Ondoren ikuspegi berriak ahalbidetzeko jarduerak. Ondoren, azalpen teorikoen batera hainbat irakurketa egingo dira, eta azkenik, talde-lanean aplikatu beharko dute ikasitakoa.

II.5. EBALUAZIOA

1) Irakurketen lan koadernoak. Amaierako notaren %50. Testu teknikoaren banakako irakurketa ororen ostean honako lana egin beharko du banaka:

a. Testuaren ideiak nagusiak idatzi. Gehienez 15 ideiak. Liburuko zein orrialdean irakurri duten eta bere horretan agertuko dituzte ideiak horiek. Aukeratutako ideietan laburbildu behar da testuak dioena.

b. Ondoko galderak erantzun.

*Artikuluak edo testuak zein ideiak berri eskaini dizu aldeak aurretik ezagutzen ez zenuena, aurrezagutzaren bat aldarazi dizuna edota bereziki arreta deitu dizuna? Gutxienez 3. Erantzunak argudiatu.

*Pasarte bakar bat aukeratu beharko bazenu zein izango litzateke eta zergatik? Aipatu zein orrian dagoen eta bere horretan kopiatu. Ondoren argudiatu zergatik aukeratu duzun hori.

Irakurri beharreko testuak:

*NOGUEIRAS, L.M.(1996): *La práctica y la teoría del Desarrollo Comunitario. Descripción de un modelo*. Madril. Narcea (132-155).

*MARTIN, P.; PAÑO, P. (...): "Un ejemplo de aplicación de metodologías participativas: el OPCIL, en Leganés". *Educación Social* aldizkaria. 30.zk.

*RIPOLLES, E. (...): "Organización y gestión de instituciones socioculturales".

*ALONSO, J. (...): eranskinak. Ez editatua.

*PARADAS, C.; DE LA RIVA, F. (2001): *Proiektuak. Nola eraman zure ideiak praktikara, inguru-minguruan ibili gabe*. Bilbo. Fundación Esplai.

*PEREA, A. (2001): "Plan integral de participación ciudadana de Sant Feliu de Llobregat". *Educación Social* aldizkaria. 30.zk.

2) <Gizarte eta Kultur animaziorako programa baten diseinua>. Amaierako notaren %40). Kalitate-katedrak hobesten duen talde-lanaren ereduaren arabera gauzatuko da.

3) Taldearen autoebaluazioa. Amaierako notaren %10. Talde bakoitzak bere burua ebaluatu beharko du, hau da, talde-lan ereduak aholkatzen duen metodologiaren arabera lan egin ote duen, eta hala izan ez bada, nolako arazoak izan diren. Taldeak bere buruari nota bat jarri beharko dio. Irakasleak ere nota bat jarriko dio taldeari. Taldeak ipinitako nota irakaslearena baino handiagoa suertatzen den kasuetan, hiru puntuko aldea badago, baliogabetu ahal izango du irakasleak.

OHARRA: Klasera ez datozenak nahiz kontratu didaktikoa betetzen ez dutenak azterketara joan beharko dute. Irakurketen lan koadernoan aurkeztuz gero, notaren %50 izango da lan koadernoan eta beste erdia azterketa. Lan koadernorik ez bada, azterketa izango da amaierako notaren %100. Hauek ez dute autoebaluaziorik egin beharko. *Gizarte eta Kultur Animaziorako Programa baten diseinua egitea aukeratzen dutenak testu guztiak irakurri behar izango dituzten arren, lan koadernoan gehien gustatu zaizkien **hiru testuen** gainean egin beharko dute lana.*

Hona hemen TL-aren egutegia.

Datatik	Datara	Gaitegia eta Zeregina (GKAP II)
Otsailaren 25etik	Otsailaren 26ra	1.jarraipen-bilera. Denok batera eskola orduan. TL-ak antolatu, ereduaren gaineko azalpen laburra, hainbat alderdi adostu.
Otsailaren 28tik	Martxoaren 11era	1.gaia: errealitatearen azterketa.
Martxoaren 13tik	Apirilaren 1era	2.gaia: ekipamenduak, baliabideak, erakundeak eta espazioak.
Apirilaren 3tik	Apirilaren 3ra	3.gaia: gkap-re plangintza (lehen zatia).
Apirilaren 7tik	Apirilaren 11era	2.jarraipen-bilera. Taldeka. Taldearen funtzionamendua eta proiektuaren atala <errealitatearen azterketa> eta <ekipamenduak, baliabideak, erakundeak eta espazioak>.
Apirilaren 14tik	Maiatzaren 1era	3.gaia: gkap-ren plangintza (bigarren zatia)
Maiatzaren 5etik	Maiatzaren 9ra	3.jarraipen-bilera. Taldeka. Taldearen funtzionamendua eta proiektuaren atala <gizarte eta kultur animaziorako programaren plangintza>.
Maiatzaren 12tik	Maiatzaren 22ra	4.gaia: gkap-ren esku hartzea
Maiatzaren 26tik	Maiatzaren 29ra	4.jarraipen-bilera. Taldeka. Taldearen funtzionamendua, autoebaluazioa, proiektuari egin beharreko azken zuzenketak eta iradokizunak
Maiatzaren 18an		Irakurketen lan koadernoan aurkezteko azken eguna.
Maiatzaren 21ean		Gizarte eta kultur animaziorako programaren diseinua entregatzeko azken eguna.

Jarraipen-bileren egutegia eta ordutegia.

	ASTL.	ASTR.	OSTG.
9:30-11:00		3.taldea (DO)	8 taldea (GKAP II)
11:00-12:30	1.taldea (DO)	4.taldea (GKAP II)	9 taldea (DO)
12:30-14:00	2.taldea (tutoretza)	5 taldea (tutoretza)	10 taldea (tutoretza)
16:00-17:30		6.taldea	
17:30-19:00		7.taldea	

III.3. MATERIAL ETA BALIABIDE DIDAKTIKOAK

Atal honetan ez dituz zerrendatuko saio magistraletan erabiliko direnak. Bakarrik TL-arekin zer ikusi zuzena dutenak. Hona hemen TL-a behar bezala garatzeko ikasleek eskura izango dituzten baliabideak.

***Ikasgaien programazioa.** Idatzi dudan honako hau izan daiteke hainbat moldaketa egin eta gero.

***Kontratu didaktikoa.** Itziar Rekalde irakasleak erabiltzen duen eredua hartu dut oinarri. (ikus 1.eranskina)

***Taldekoko fitxa.** Kalitate Katedrak antolaturiko mintegian banatutako eredua hartu dut oinarri. (ikus 2.eranskina)

***Bileraren egitura** Kalitate Katedrak antolaturiko mintegian banatutako eredua hartu dut oinarri. (ikus 3.eranskina)


***Eginkizun orria** Kalitate Katedrak antolaturiko mintegian banatutako eredua hartu dut oinarri. (ikus 4.eranskina)

***Bileren akta eredua** Kalitate Katedrak antolaturiko mintegian banatutako eredua hartu dut oinarri. (ikus 5.eranskina)

***Bileren ebaluazioa** Kalitate Katedrak antolaturiko mintegian banatutako eredua hartu dut oinarri. (ikus 6.eranskina)

***Taldearentzako autoebaluazio orria.** Itziar Rekalde irakasleak erabiltzen duen eredua hartu dut oinarri. (ikus 8.eranskina)

eranskinak



kontratu didaktikoa

-ikaslearen konpromezu orria-

Argazkia

Abizenak:

Izena:

NAN zk.:

Tlfn.:

e-posta:

Azpian sinatzen duen honek, Bizkaiko Irakasleen Unibertsitate Eskolako Gizarte Hezkuntzako ikaslea naizen aldetik, *didaktika orokorra* ikasgaia garatzeko ondorengo lan sistema aukeratu dut:

- 1) **Testu teknikoen irakurketen lan koaderno**a egitea programan aipatzen den moduan.
- 2) **Gizarte eta Kultur Animaziorako programa baten diseinua** egitea talde-lanaren ereduaren arabera, programan aipatzen den bezala.
- 3) **Taldeko autoebaluazioa** egitea programan aipatzen den moduan.


Ikasgai hau egiten ari naizen bitartean honako baldintza hauek betetzeko konpromezua hartzen dut eta, era berean, baldintza hauek ez betetzeagatik etor daitezkeen ondorioak nire gain hartzen ditut ere bai. Honats onartzen ditudan baldintzak:

- a) Egunerko klaseetara etorriko naiz (bakarrik lau huts justifikatu gabe onartuko ditugu).
- b) Taldeak ipinitako arauak errespetatuko ditut.
- c) Klasea hasten denetik bukatu arte bertan lanean egongo naiz.
- d) Bakarka nahiz taldeka arituko naiz lanean hala eskatzen denean.
- e) Gelan nire jarrera baikorra izango da eta ikaskuntza-irakaskuntza prozesuan aktiboki parte hartuko dut.
- f) Ez dut egingo irakaslearen nahiz ikaskideen jarduna ikasgelan oztopa dezakeenik.
- g) Goian aipatutako lanak egingo ditut eta adostutako egunerako aurkeztu ere bai.

Aipatutako guztia beteko ez banu idatzizko azterketa izango litzateke nire ikaskuntza prozesua baloratzeko irizpide bakarra.

Bilbon,koren(e)an.

Irakaslearen sinadura



kontratu didaktikoa

-ikaslearen konpromezu orria-

Argazkia

Abizenak:

Izena:

NAN zk.:

Tlfn.:

e-posta:

Azpian sinatzen duen honek, Bizkaiko Irakasleen Unibertsitate Eskolako Gizarte Hezkuntzako ikaslea naizen aldetik, *gizarte eta kultur animaziorako programak II* ikasgaia garatzeko ondorengo lan sistema aukeratu dut:

- 4) **Testu teknikoaren irakurketen lan koaderno**a egitea programan aipatzen den moduan.
- 5) **Gizarte eta Kultur Animaziorako programa baten diseinua** egitea talde-lanaren ereduaren arabera, programan aipatzen den bezala.
- 6) **Taldeko autoebaluazioa** egitea programan aipatzen den moduan.


Ikasgai hau egiten ari naizen bitartean honako baldintza hauek betetzeko konpromezua hartzen dut eta, era berean, baldintza hauek ez betetzeagatik etor daitezkeen ondorioak nire gain hartzen ditut ere bai. Honats onartzen ditudan baldintzak:

- h) Egunerko klaseetara etorriko naiz (bakarrik lau huts justifikatu gabe onartuko ditugu).
- i) Taldeak ipinitako arauak errespetatuko ditut.
- j) Klasea hasten denetik bukatu arte bertan lanean egongo naiz.
- k) Bakarka nahiz taldeka arituko naiz lanean hala eskatzen denean.
- l) Gelan nire jarrera baikorra izango da eta ikaskuntza-irakaskuntza prozesuan aktiboki parte hartuko dut.
- m) Ez dut egingo irakaslearen nahiz ikaskideen jarduna ikasgelan oztopa dezakeenik.
- n) Goian aipatutako lanak egingo ditut eta adostutako egunerako aurkeztu ere bai.

Aipatutako guztia beteko ez banu idatzizko azterketa izango litzateke nire ikaskuntza prozesua baloratzeko irizpide bakarra.


Billbon,koren(e)an.

Ikaslearen sinadura



Taldeko fitxa

hezitzaileok sortu duzuen enpretsaren izena eta logoa



Animazio programaren izena

1. Izen abizenak: Tlfn.: e-posta:	5. Izen abizenak: Tlfn.: e-posta:
2. Izen abizenak: Tlfn.: e-posta:	6. Izen abizenak: Tlfn.: e-posta:
3. Izen abizenak: Tlfn.: e-posta:	7. Izen abizenak: Tlfn.: e-posta:
4. Izen abizenak: Tlfn.: e-posta:	8. Izen abizenak: Tlfn.: e-posta:

*KOORDINATZAILEAren izena²:

*GAI ORDENEN EGILEAren izena³:

*DENBORA KONTROLATZAILEAren izena⁴:

*AKTA JASOTZAILEAren izena⁵:

*EGINKIZUNEN BEGIRALEAren izena⁶:

*BUKATZAILEAren izena⁷:

² **Koordinatzailea:** Hari dagokio taldekide guztiei jakinaraztea adostutakoen eta hitzorduen berri ematea. Era berean, bera izango da bileretan moderatzaile lanak egingo dituenak. Irakaslearen aurrean bera izango da taldearen bozeramalea. Taldekide batek kexaren bat duenean, koordinatzailearengana jo beharko du eta honek erabakiko du gai ordenean sartzea ala ez, beti ere gai ordenaren egilearen onepenezkin.


³ **Gai ordenen egilea:** Bilerak bakoitzeko gai ordena prestatu beharko du. Horretarako, taldekide bakoitzak bilerara eraman nahi dituen kontuak jaso eta lehentasunen arabera zerrendatu beharko ditu. Behin gai ordena osatu duenean, taldekide guztiei eskurazki beharko die gai ordena jakinaren gainean joan daitezen bilerara.

⁴ **Denbora kontrolatzailea:** Bera izango da bileretan ordulariari erreparatuko diona ordu t'erdian gai orden osoa lantzen dela bermatzen duena. Horretarako, gai ordeneko gai bakoitzari denbora tarte bat eskainiko dio. Gai jakin bati zenbat denbora eskaini ez baldin badaki gai ordenen egilearekin nahiz koordinatzailearekin hitz egingo du. Bere ardura izango da eztabaida txepelak eta irtenbide gabekoei amaiera ematea.

⁵ **Akta jasotzailea edo idazkaria:** Bere egiteko nagusia izango da bileren laburpena edo akta jasotzea.

⁶ **Eginkizunen begiralea:** bileran egin den egitekoen banaketa jasotzea izango da, eta garaiz bete diren ala ez begiratzea edo zaintzea.

⁷ **Bukatzailea:** Bera izango da behin lana egin denean, atal guztiak itxura bera dutela (hizki mota, tamaina, titulazio irizpideak, lerro arteko tarteak, goiburak, eta beste) ikuskatuko duena eta akats ortografiko nahiz gramatikak zuzenduko dituenak. Pasarteren bat ulertezina gertatzen bazaio, egileari berregiteko eskatzeko ahalmena izango du. Erabakia, dena den, taldeak hartu beharko du.



bileren egitura

GAI ORDENAREN ERREPASOA

Bileraren aldi honetan, gai ordenaren egileari hitza emango zaio eta bileraren gai ordena irakurriko du. Inor balego gairen bat ulertzen ez duena, gai ordenaren egileak azalduko dio gai hori jorratzerakoan zertaz hitz egin beharko duen taldeak.

EGINKIZUNEN FITXARI ERREPASOA

Bileraren aldi honetan, eginkizunen begiraleak hartuko du hitza eta banan-banan galdetuko dio taldekide bakoitzari ea bete dituen aurreko bileran egokitu zitzaizkion egitekoak. Aldi honetan, ez da komeni denbora luzea ematea aitzakietan, eginkizunen egoera zein den ezagutzea da helburu, beraz, aski da esatearekin egitekoa egina dagoen ala ez.

GAIEEN PLANTEAMENDUA

Koordinatzaileak hartuko du hitza, eta gaiak banaka planteatuko ditu. Lehenengo bat, eta amaizterakoan hurrengoa. Ez ibili gai bat baino gehiago aldi berean eztabaidatzen. Gai bati buruz hizketan hasterakoan, zaindu denok arreta gai berdinean fokatuta duzuela eta ikuspegi beratik ari zaretela hitz egiten.

ADOSTUTAKOEN AZALPEN LABURRA

Aldi honetan, idazkariak hartuko hitza. Gai bakoitza jorratu ostean taldeak, ziurrenik, hainbat erabaki hartuko ditu. Erabaki hauek operatiboak izateko esaldi labur batean adierazi ahal izango da argitasun osoz. Nork zer egingo duen gisako esaldiak ere guztiz argigarriak suertatzen dira. Adostutakoen azalpen laburra egin ostean, taldekide guztiei galdetuko zaie ea adostutakoak ondo laburtuta dauden eta bere gain hartzen duten adostutakoa. Hala bada, aktan jasoko dira. Hala ez bada, taldeak argitu beharko du zehatz-mehatz zer den adostu dena.

HURRENGO BILERARAKO GAI ORDENERAKO PROPOSAMENAK


Dena delakoarengatik gairen bat jorratu gabe geratu bada, edota gai jakin baten inguruan adostasunik izan ez delako bertan behera utzi baldin bada, hurrengo bileraren gai ordenean sartzea merezi duen ala ez erabaki beharko du taldeak. Proposamenak, nola ez bada, gai ordenen egileak jaso beharko ditu hurrengo deialdirako.

HURRENGO BILERAREN LEKUA, EGUNA ETA ORDUA ZEHAZTU eta BILERAREN EBALUAZIOA

Koordinatzaileak beteko du ebaluazio orria, nahiz eta denon artean beteko duzuen.


Egitekoen fitxa

[illegible]




Bileraren akta

Data:	Ordua:	Lekua:	Iraupena:
Etorritakoak: * * * *		Etorri ez direnak: * * * *	
Landutako gaiak * * * *			
Lortutako akordio nagusiak (adostutakoak): * * *			
Hartutako konpromisoak: * * *			
Hurrengo bileraren data:	Hurrengo bileraren ordua:	Hurrengo bileraren lekua:	



Bileraren ebaluazio orria

<i>Data:</i>	<i>Ordua:</i>	<i>Lekua:</i>	<i>Iraupena:</i>	
Zer moduz joan da bilera?		2 ados nago	1 ez ados ez aurka	0 ez nago ados
1. Bileraren helburuak eta gaiak argi zeuden.				
2. Argigarria eta emankorra izan da bilera.				
3. Gai orden osoa jarraitu da.				
4. Entzun eta aintzat hartu dira bildutako guztien ideiak.				
5. Etxerako lanak eginda ekarri dira.				
6. Argi geratu dira akordioak, eginkizunak, arduradunak eta epeak.				
7. Bilera ordua errespetatu da, ez da alperrik luzatu.				
Adierazi nahi duzue besterik? * * * *				




Taldearentzako autoebaluazio orria

Atzealdean erantzun ondorengo galdera hauek:

- 1) Lortu al du taldeak bere egitekoa modu profesionalean burutzea, hau da, gizarte eta kultur animaziorako programa baten diseinua osatzea?
- 2) Garaiz identifikatu al dira arazoak eta hauek gainditzeko neurriak hartu eta gauzatu?
- 3) Egitekoak eskatzen zuen denbora eta ahalegina eskaini al diote taldekide guztiek? Egitekoaren ardura eta zama ondo banatu al ditu taldeak?
- 4) Nola sentitu dira taldekideak taldean? Espazio atsegina eta lanerako motibagarria suertatu al da?
- 5) Zeintzuk izan dira taldeak erakutsi dituen ahulezirik nabarmenenak egitekoa betetzeko orduan?
- 6) Zeintzuk izan dira taldeak erakutsi dituen indargunerik nabarmenenak egitekoa betetzeko orduan?
- 7) Zer egin du taldeak bukaeran aipatzen den nota merezi izateko?

Otik 10era puntua
ezazue taldearen
lan prozesua eta
produktua

--



***GIZARTE ETA KULTUR ANIMAZIORAKO
PROGRAMAK II ikasgaiaren
programazioa.***

Itziar REKALDE RODRIGUEZ
Diego EGIZABAL OLLOKIEGI

Bilboko Irakasleen Unibertsitatea
Didaktika eta Eskola Antolakuntza saila